



GRADU AMAIERAKO LANA

2019/2020 IKASTURTEA

NUTRIZIO GEHIGARRIEN ERAGINKORTASUNA PRESIO ULTZEREN ORBAINTZEAN

BERRIKUSKETA BIBLIOGRAFIKOA

Egilea: Idoia Gómez Cardeñoso

Zuzendaria: Idoia Larretxi

Hitz kopurua: 5959

Eguna: Gasteizen, 2020ko Apirilaren 20a

ESKERRAK

Eskerrak eman nahi dizkiot Idoiari urtean zehar jasotako laguntzagatik. Azken boladan guztiontzat oso zailak izan diren gertakizunak eman dira, baina bere alde zurrerako jarrera ikeragarria izan da denbora guztian. Lan hau aurrera ateratzea ezinezkoa izango zen bere laguntza barik.

Eskerrik asko nire familia, lagun eta bikoteari nigan sinesteagatik, nik egiten ez nuenean. Azkenik, eskerrik asko lau urteetan zehar lagundu didaten irakasle guztiei, haiei esker badakit zer nolako erizaina izan nahi dudan.

AURKIBIDEA

✚	SARRERA.....	2
✚	MARKO TEORIKOA ETA JUSTIFIKAZIOA.....	3
✚	HELBURUA.....	7
✚	METODOLOGIA.....	8
	• BILAKETA PROZESUA.....	8
	• ARTIKULUEN AUKERAKETA.....	9
	• ARTIKULUEN ANALISIA.....	9
✚	EMAITZAK ETA EZTABAIDA.....	9
✚	MUGAK.....	22
✚	ONDORIOAK.....	24
✚	ERREFERENTZIAK.....	26
✚	ERANSKINAK.....	31
	• 1. ERANSKINA: PUren estadioak.....	31
	• 2.ERANSKINA: MNA testa.....	32
	• 3.ERANSKINA: PUSH tresna.....	33
	• 4.ERANSKINA: DESIGN-R tresna.....	34
	• 5. ERANSKINA: BWAT tresna.....	35
	• 6. ERANSKINA: Kontzeptu-taula.....	37
	• 7. ERANSKINA: Datu baseetan egindako bilaketa-ekuazioak.....	38
	• 8.ERANSKINA: Fluxu-diagrama.....	49
	• 9. ERANSKINA: Ikerketa kuantitatiboen irakurketa kritikoa.....	51
	• 10. ERANSKINA: Laburpen-taula.....	55
	• 11.ERANSKINA: Zuhaitz kategoriala.....	72

SARRERA

Marko teorikoa eta justifikazioa: Zahartzaroan hainbat aldaketa ematen dira presio ultzerak garatzeko arriskua handitzen dutenak. Arrisku faktore guztien artean, desnutrizioa da presio ultzerak garatzeko gehien laguntzen duena. Hortaz, erizainek desnutrizioa duten zein arriskuan dauden pazienteak antzeman behar ditu eta ildo horretatik presio ultzeren garapenaren arriskua gutxituko da. Batzuetan, adinduen egoera fisiologikoagatik gehigarrien erabilera beharrezkoa da behar nutrizionalak asetzeko.

Helburua: Aztertu nutrizioaren eraginkortasuna presio ultzeren orbaintze prozesuan adinekoetan.

Metodologia: Literaturaren errebisio bibliografikoa burutu da. Medline, Cinahl, Embase, Cuiden eta The Cochrane Library, bezalako datu baseak erabili dira, beste web guneen laguntzarekin: RNAO, NICE, Guía de Salud, Doyma, Clinical Key, Science Direct, Scielo, Dialnet, The Wound Healing Society eta GNEAUPP.

Emaitzak eta eztabaida: Gehigarri nutrizional bakoitzaren eraginkortasuna zehaztu da nutriente bakoitza PUren orbaintze prozesuan duen eragina baloraturaz. Ikusi da arginina aminoazidoa eta zinka PUren sendaketan laguntzen dutela, baita makronutriente eta mikronutrienteen arteko konbinazioak ere. Gainera, gehigarri hiperproteiko eta hiperkalorikoek orbaintze prozesuan efektu onuragarrienak adierazi dituzte.

Ondorioak: Aurkitutako artikuluekin argi dago nutrizioak garrantzia duela zauri kroniko hauen sendaketan ebidentzia gutxikoak diren entseguak lortu arren. Beraz, etorkizunera begira, kalitate-maila hobea dute ikerketak egitea gomendatzen da.

Hitz gakoak: *Diet; Geriatric Nutrition; Nutrition; Nutrición; Aged; Aged, 80 and over; Ancianos; Pressure Ulcer; Ulceras por presión; Wound Healing; Cicatrización; Effectiveness.mp; Efficacy.mp; Efectividad.*

MARKO TEORIKOA ETA JUSTIFIKAZIOA

Azken urteotan adinekoen intzidentzia, hau da, 65 urte baino gehiago dituzten pertsonen kopurua nabari egin du gora. Izan ere, Espainiako Estatistika Erakundearen aburuz, 2060. urterako 15 milioi agure egongo dira, biztanleri osoaren herena suposatuz. Are gehiago, azkenengo urteetan, 80 urte baino gehiagoko pertsonen kopurua handitu egin da estatu mailan, guztira % 40,7ko igoera suposatuz. Euskal Autonomi Erkidegoak, konkretuki, areagotze handienetarikoa jasan duen lurraldea bilakatu da, % 52,1ko igoera izanez (1).

Zahartzaroan, presio ultzerak (PUak) garatzeko arriskua handitzen duten aldaketa nabarmenak ematen dira. Alde batetik, adinaren ondorioz ematen diren aldaketa fisiologikoak eta bestetik, adinekoetan ohikoak diren gaixotasun batzuen prebalentzia esanguratsuekin edota jarduera fisikoaren faltarekin erlazioa dutenak. Garrantzitsua da aipatzea, adinekoetan PUak agertzen direnean erikortasun eta hilkortasun tasa handitzeaz gain, bizi-kalitatea asko murrizten dela eta beste gaixotasun batzuk pairatzeko arriskua areagotzen dela, esaterako, sarkopenia (2). Hortaz berebiziko garrantzia dauka hauen prebentzioan lan egitea.

Ipar Amerikako *Presiozko Ultzeren Aholkularitza Nazionaleko Panelaren* ustez, “*Presio ultzerak, presio luze eta handi baten edo presio eta zizaila baten konbinazioaren ondorioz larruazalean edo azpialdeko ehunean sortzen den lesioa da, hezur konkorrean kokatzen dena batez ere*” (3). PUak I,II,III eta IV estadiotakoak izan ahal dira (3) (1 eranskina). Alde batetik, aipatu den bezala presioa daukagu. Hau grabitatearen ondorioz, perpendikularki bi planoen artean ematen den ehun zapalketa da, bat pazienteena eta bestea kanpokoa. Denboran mantentzen ez bada eta lekualdaketak ematen badira, ez du inolako eragozpenik sortzen, baina denboran mantentzen bada eta kanpoko indarra presio arterialaren betetze kapilarra (32 mmHg inguru) eta zain presioaren kanporatze kapilarra (8-12 mmHg inguru) baino handiagoa bada odol-jarioa eragotzi eta hipoxia tisularra sortu daiteke, ehunaren nekrosia eta heriotza emanez. Bestetik zizaila daukagu. Kasu honetan, alboan dauden bi gainazalak elkarren artean irristatu egiten dira, non kanpoko ehuna (larruazala, fasziak) tapakien gainean finko gelditzen da, ehun sakonak higitu egiten diren bitartean. Modu honetan, ehun perfusioa eteten da, odol hodiak distortsionatu eta konprimatu egiten baitira (4,5).

Presioagatik sortzen diren ultzerak eta zauri kronikoak aztertze eta aholkatzeko talde nazionalak Espainia mailan hainbat ikerketa epidemiologiko aurrera eraman ditu arazo klinikoaren garrantzia ikusgai egiteko. 2013an, haien azkenengo ikerlanean, PUren prebalentzia handitu egin zela behatu zuten; adinduen egoitzetan % 12-14, ospitaletan % 7-8 eta arreta primarioan, etxez etxeko laguntzarekin % 7,9-9,1 igoera izanez, hain zuzen (6). Halere esan beharra dago, Europako beste herrialdeekin konparatuz PUren inguruko azterlan gutxi egin direla, lau hain zuzen, eta gaur egun bosgarren ikerketa epidemiologikoa martxan dago (6,7).

Adinekoetan emandako PUren garapenean laguntzen duten aldaketa fisiologikoen barne, larruazaleko asaldurak edo malnutrizioa kokatzen dira, besteak beste (8-10). Adinarekin, azaleko papila dermikoaren kopurua murrizten da, hortaz, ile-folikuluaren elikadura inhibitzen da;

eta nutrienteak eta oxigenoa zelula epidermikoen geruza sakonera ez dira modu egokian heltzen. Gainera, zelulen mugimenduak moteltzen dira, zelulen deuseztatzea ordezkapena baina azkarragoa izanik, babes-funtzioa kolokan jarri. Halaber, ohikoa da adinduen larruzala lehorrago eta hauskorrago bihurtzea eta elastikotasuna galtzea. Honez gain, zahartzaroen gorputzaren gantz gordekinak murrizten dira hezurak estalperik gabe utziz, pertsona presioarekiko zaurgarriago bihurtuz (5,11).

Badira PUak garatzeko beste arrisku faktore batzuk, adibidez, mugiezintasuna, zentzumenen galera, tratamendu farmakologikoak, higieze falta, osasun-gailuak edota osasun profesionalen praxi txarra (8–10). Halere, aipatu diren arrisku faktore guztien artean, desnutrizioa da hain zuzen, PUak garatzeko gehien eragiten duen faktorea. Azpimarratzekoa da Sancho A *et al.*-en (12) aburuz, PUak izateko arriskua egoera nutrizionalarekin zuzeneko erlazio duela desnutrizioa izateko arriskua duten pazienteen % 65,2a eta desnutrizioa duten pazienteen % 85,7a PUak izateko arriskua dutelako.

Malnutrizioa sindrome geriatricoa da, hau da, gaixotasun bat edo gehiago edo/eta egoera psikosozialen ondorioz, adinduen kolektiboan oso maiz ematen den zeinu eta sintoma (11). Osasunerako Mundu-Erakundeak (OMEK) malnutrizioa horrela definitzen du: “*nutrienteen edo/eta energiaren gehiegizko edo gutxiegiak ahorrak edo desoreka da*” (13). Adinduetan ohikoena gutxiegiak ingesta da, eta horrek kolektiboaren desnutrizioa pairatzeko arriskua areagotzen du. OMEren aburuz desnutrizioa pairatzeko $<18,5 \text{ kg/m}^2$ -ko gorputz masa indizea agertu behar da. Espainia mailan egindako ikerketa batean behatu dute, 70 urtetik gorako pertsonen % 37,7ak desnutrizioan edo desnutrizioa sufritzeko arriskuan daudela (1). Ildo horretan, Madrilgo Erkidegoan DREAM +65 deritzon beste ikerketa batean egoiztako pazienteen % 15,6ak desnutrizioa pairatzen dutela ondorioztatu dute (1).

Beraz, kolektibo honetan ematen diren desnutrizio tasa kezkarriak ikusita eta hainbat autoreekin ados, azpimarratzekoa da nutrizioak jokatzen duen paper garrantzitsua bai PUren prebentzioan zein orbaintze prozesuan. Orbaintze prozesuak elkarri lotuta eta menpekoak diren lau fasez osatuta dago; hantura prozesua, proliferazioa, zauriaren uzurtzea eta birmoldaketa. Hauek zelularen aktibazioa eta akzioa gauzatzen dute, ehunaren hazkuntza, konponketa eta birmoldaketa estimulatuz. Modu horretan, ehunaren ezaugarri fisiko, mekaniko eta elektrikoak bereganatzen dira (14). Autore batzuen arabera, desnutrizioak, orbaintze prozesuaren eragozpenarekin zuzeneko erlazioa du, izan ere, hanturazko prozesua luzatu, fibroblastoen ugaltzea gutxitu eta kolagenoaren sintesia asaldatzen duelako. Bestalde, dietaren gabeziak desnutrizio kaloriko-proteiko zorrotzak eragin dezake. Honek, alde batetik, ehunaren birsorkuntza, hantura erantzuna eta immunitatea oztopatu egiten ditu eta bestetik, albumina serikoaren gutxiegitasuna eragin dezake, zeinek ehunaren oxigenazioa murriztu egiten du larruzalaren tolerantzia murriztuz presioarekiko, eta edema sortuz (4,8,9,15–17).

Adinduen organismoaren beharrak asetzeko eta desnutrizioa ekiditeko, elikadura nahikoa, orekatua eta anitza mantendu behar da. Horretarako, energia, makronutriente eta

mikronutrienteen ahorakin egokia bermatuko da. Elikadura eta orbaintze prozesuaren arteko erlazioari dagokionez, proteinen kontsumo altuak berebiziko garrantzia izaten du, izan ere ikerketa ugari, PUren osatze tasa altuekin erlazionatu ditu (9). Adinarekin gorputzeko gihar-masaren murrizketa ohikoa da, ondorioz, PUak izanez gero, proteina kantitate handiagoak hartzea 2 g/kg/egun gomendatzen da (18). Hainbat autoreen aburuz, 30 kcal/kg/eguneko ingesta bermatu behar da PUak sendatzeko, eta arginina aminoazidoa; burdina, zink eta kobre mineralak eta A, E eta C bitaminak paper garrantzitsua jokatzen dute orbaintze prozesuan (15–17,19,20). Batzuetan, adinduen egoera fisiologikoa dela eta oso zaila da behar guztiak asetzea elikadura tradizionalaren bitartez, hortaz, desnutrizioa ekiditeko gehigarriak erabiltzea baloratu beharko da (21).

Aipatutako guztia kontutan hartuz, ezin da ukatu erizainen funtsezko papera, desnutrizioa pairatzeko arriskuan dauden pazienteak antzeman eta honen agerpena saihesteko eta ondorioz, PUren garapenaren arriskua jaisteko ere. Erizainek honen susmoa dutenean nutrizio *screening*-a egin behar dute modu azkar, simple eta zehatzean diagnostikatzeko. *Elikadura Klinikoaren eta Metabolismoaren Elkarte Europearrak* 65 urte baino gehiagoko pertsonetan Mini Nutritional Assessment (MNA) (2.eranskina) galdetegia egitea gomendatzen du. Desnutrizioa detektatuz gero, balorazio sakonagoa burutuko da, antropometria, balio serologikoak, giharren indarra eta pazientearen ohitura dietetikoak baloratzeko (19).

- Lehen esan bezala garrantzitsua da ere PUren garapena ekiditea edo/eta eboluzioa kontrolatzea hauen ondorioz agertu daitezkeen konplikazioak saihesteko. Horregatik, erizainaren beste ardura bat zauriaren erregistro eta jarraipena burutzea izango da, pazienteei behar dituen zainketa lanak eskaintzeko. Horretarako, DESIGN-R, PUSH, BWAT eta Visitrak bezalako tresnak erabiltzen dira: PUSH: NPUAP egindako tresna da. Hiru parametro baloratzen ditu; PUren azaleraren tamaina, exudatu kantitatea, eta bestetik ehun mota. Zenbat eta puntuazioa baxuagoa izan, orduan eta PUren egoera hobetagoa izango da (22) (3.eranskina).
- DESIGN-R: Japoniako batzorde zientifikoa sortutako tresna honek zazpi parametro aztertzen ditu: sakontasuna, exudatua, tamaina, hantura/infekzioa, granulazioa, nekrosia eta poltsikoa. Zenbat eta puntuazioa baxuagoa izan, orduan eta PUren egoera hobetagoa izango da (23) (4.eranskina).
- BWAT: Barbara-Bates-Jensen sortutako tresnak hamahiru parametro neurtzen ditu: tamaina, sakontasuna, ertz mota, exudatu eta ehun nekrotiko mota/kopurua, azal perilesionalaren egoera, edema, indurazioa, granulazioa eta epitelizazioa. Puntuaketa baxuak, PUren egoera hobetagoa dela adierazten du (24) (5.eranskina).
- Visitrak: PUren azaleraren tamaina neurtzeko erabiltzen den 3 geruzaz osatutako orri esterilizatu eta garden bat da. PUren gainean jartzen da eta boligrafo baten bidez PUren ertzak delimitatzen dira, orriaren gainean presio ultzera marraztuz. Gero orriaren neurketa dispositibo digital baten bidez egiten da, makinak berak bere azalera adieraziz (25).

Orbaintze prozesua desagokoa dela ondorioztatzekotan balorazio nutrizionala egitea komeni da, egoera nutritiboarekin erlazionatuta dagoela baztertzeko (4). Guzti honekin adinduen bizikalitatea hobetzea da helburu.

Laburbilduz, nutrizioa eta PUak zuzeneko erlazioa dute. Jadanik gehigarriak ospitaletan erabiltzen dira. Beraz, berrikuspen honekin modu objektiboan eta ebidentzian oinarrituta PUren orbaintze prozesuan nutrizioaren eraginkortasuna aztertuko da. Gainera eskuratutako informazioaz baliatuz erizainek gaiaren inguruko jakintasun maila handituko da eta adindu bakoitzaren behar nutrizionalak modu egokian asetuko ditu PUren orbaintze prozesua eta prebentzioa saihestuz.

HELBURUA

- ✚ Aztertu nutrizioaren eraginkortasuna presio ultzeren orbaintze prozesuan adinekoetan.

METODOLOGIA

BILAKETA PROZESUA

2019-2020 urtean egindako errebisio bibliografikoa da, nutrizioak adinekoen presio ultzeren orbaintze prozesuan duen eraginkortasuna aztertzeko asmoz. Gaiari buruzko informazioa bilatzeko, lehenengo fasea burutu zen, hau da, helburuaren kontzeptu nagusiak identifikatu ziren; nutrizioa, adinekoak, eraginkortasuna, orbaintzea eta prezio ultzerak. Ondoren, hiztegi baten laguntzaz bakoitzari dagokion sinonimo eta antonimoak topatu ziren zein ingelesera itzuli. Bestalde, datu-base bakoitzari dagokion tesaurora bilatu zen (MeSH, encabezamiento de Cinahl, DeCS, EMTREE) ekuazio bilaketa egokiak burutzeko (6.eranskina).

Bigarren fasean ``OR`` eta ``AND`` eragile booleanoak erabiliz, helburuari erantzuten zioten artikulua topatzeko asmoarekin deskriptoreak haien artean konbinatu ziren. Hainbat bilaketa egin ziren modu koherente eta sistematiko batean eta lortutako emaitzen arabera, ekuazioak zabaldu edo murriztu egin ziren (7.eranskina).

Artikuluak gune hauetatik lortu ziren:

- Datu baseak: Medline, Cinahl, Embase, Cuiden eta The Cochrane Library.
- Ebidentzian oinarritutako praktikak (Bigarren mailako bilaketa): RNAO, NICE eta Guía de Salud.
- Eskuzko bilaketa: Doyma, Clinical Key, Science Direct, Scielo, Dialnet, The Wound Healing Society eta GNEAUPP.

Taula 1: Artikuluen barneratze eta kanporatze irizpideak

	<i>Barneratze irizpideak</i>	<i>Kanporatze Irizpideak</i>
Argitaratze data:	2011-Current. Gida klinikoak: 2009-2019	
Hizkuntza:	Gazteleraz eta ingelesez	
Parte hartzaileak	65 urtetik gora	
	Bai arreta primarioan, egoitzetan edota ospitalean dauden pertsonak.	Animaliekin probak egiten dituzten ikerketak.
	Desnutrizioa edo normopisua duten pertsonak.	Obesitatea duten pertsonak.
	Presio bidez egindako ultzerak dituztenak (I,II,III,IV eta V estadioak)	Gainontzeko ultzerak, hala nola, oin diabetikoaren ultzerak.

<p>Helburua</p>	<p>Aztertu nutrizio egoki baten eraginkortasuna presio ultiaren orbaintze prozesuan adinekoetan</p>	<p>Hidratazio maila, likidoen ingesta eta PUak prebenitzeko beste arloak, hala nola, postura aldaketa, presio negatiboa, tratamendu topikoak etab.</p>
<p>Argitalpen mota</p>	<p>Artikulu analitikoak (behaketazkoak) hala nola, kasu kontrolak eta kohorteak; eta interbentziozko artikuluak, adibidez, ikerketa kuasi-esperimentalak, pre-esperimentalak eta zorizko entsegu kliniko kontrolatuak.</p> <p>Artikulu deskriptiboak, kualitatiboak, retrospektiboak, transbertzalak eta prospektiboak.</p> <p>Errebisio sistematikoak, errebisio bibliografikoak, praktikarako gida klinikoak eta aldizkariak.</p>	<p>Tesiak, adituen iritziak... eta hauek baino ebidentzia maila baxuagoko informazioa eskaintzen duten iturriak zuzenean deuseztatu egin dira (konferentziak, literatura grisa...).</p>

ARTIKULUEN AUKERAKETA


Behin bilaketak eginda, artikuluen aukeraketa egin zen. Lehendabizi, artikulu guztien tituluak irakurri ziren gaiarekin zeharkatuz zuten ala ez ikusteko, eta errepikatuta zeudenak kanporatu ziren. Ondoren, abstraktak irakurri ziren barneratze-kanporatze irizpideak eta helburua benetan betetzen zutelako baieztatzeko. Balio ez zutenak deuseztatu ziren. Aukeraturakoen irakurketa egiteko *Full-text*-ak eskuratu ziren, nahiz eta guztiena ez lortu. Gainera irakurtzean, barneratze irizpideak betetzen ez zutenak baztertu ziren. Azkenean hamasei artikulu aukeratu ziren. Hautaketa prozesu osoa fluxu-diagrama batean irudikatu da (8. eranskina).

ARTIKULUEN ANALISIA

Artikuluen kalitatea eta egokitasuna baieztatzeko, hamasei artikuluen irakurketa kritikoa burutu zen (9. eranskina). Beste alde batetik, artikulu bakoitzaren egilea, helburua, azterketa mota, lagina-paziente mota eta emaitza edo aurkikuntza interesgarriak islatu ziren taula baten bitartez, emaitzak eta eztabaida burutzeko (10. eranskina). Azkenean, lau errebisio sistematiko, hamaika entsegu kliniko, behaketazko artikulu bat eta lau gida kliniko erabili ziren.

EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Gradu amaierako lan hau, lau errebisio sistematiko (26–29), zorizko lau entsegu kliniko (30–33), sei entsegu pre-esperimental (34–39), behaketazko artikulu bat (40), entsegu kuasi-esperimental bat (41) eta lau gida klinikoetan oinarritzen da (42–45) (Irudia 1).



Irudia 1: Erabili diren artikulu motak

Errebisio honek batzaz beste 65 urte baino gehiago eta egoera nutrizional egokia edo desnutrizioa pairatzen duten pertsonak barneratzen ditu. Erabilitako entsegu kliniko batzuk, adinekoetan ohikoak diren gaitz kronikoak dituzten pazienteak kanpo utzi dituzte, adibidez, bihotz, giltzurrun eta gibel gutxiegitasuna edo/eta diabetes ez kontrolatua dutenek (30,31,33), beste batzuk, berriz, ez dute aldagai hau kontutan hartu (32,34–39,41). Laginaren tamainari dagokionez, desberdintasun nabarmenak egon dira artikuluen artean, n=10 eta n=2099 bitartean kokatuz parte-hartzaileen kopuruan (Taula 2). Behatu da ikerlan gehienetan emakumeak direla gehiengoa (30–32,34,39,40), gutxi batzuk kontrako egoera aurkezten dutenak izanik (33,35,36,38,41). Gainera sexua bereizten ez duen artikulu bat aurkitu da (37). Bestetik, sei artikuluk ez dute talde kontrolik (34–39) eta bost, aldiz, bai (30–33,41). Kontrol taldea dutenetatik lauk, bi taldeen arteko homogeneotasuna mantentzen dute, bestean berriz talde esperimentalaren pazienteen osasun egoera larriagoa da (41).

Taula 2: GrALean erabilitako artikulu zientifikoen laginaren deskripzioa

	<i>Yamanaka H. et al.</i> (30)	<i>Ohura T. et al.</i> (31)	<i>Wong A. et al.</i> (32)	<i>Cereda E. et al.</i> (33)	<i>Verdú Soriano J. et al.</i> (34)	<i>Leigh B. et al.</i> (35)	<i>Sakae K. et al.</i> (36)	<i>Yatabe J. et al.</i> (37)	<i>Iizaka S. et al.</i> (38)	<i>Monteferraro F. et al.</i> (39)	<i>Lenche Neloska et al.</i> (40)	<i>Allen B. et al.</i> (41)
Parte-hartzaileen kopurua (n)	51	50	23	220	22	24	10	10	194	11	2099	100

Lan honetan aukeratutako ikerketak eta gida klinikoak aztertu eta emaitzak erlazionatu dira planteatutako helburuari erantzuteko asmoz, hots, adinduen presio ultzeren orobatze prozesuan nutrizio egoki batek duen eraginkortasuna. Informazio guztiarekin zuhaitz kategoriala sortu da (11. eranskina), datuak modu koherente eta ordenatuan aurkezteko. Ikerketa guztietan adinduei emandako nutrizio-formulen (gehigarrien) konposizioan oinarrituz lortutako emaitzak lau ataletan sailkatu dira: energia eta proteinen gehigarriak, aminoazidoen (arginina konkretuki) gehigarriak eta mikronutrienteen gehigarriak erabiltzen duten ikerketak eta azkenik hauen konbinazioen gehigarriak erabili dituzten ikerketak (Taula 3).

Taula 3: Ikerlanak erabiltzen duten gehigarrien konposizio nutrizionala

	<i>Cereda E. et al.</i> (33)	<i>Yamanaka H. et al.</i> (30)	<i>Ohura T. et al.</i> (31)	<i>Wong A. et al.</i> (32)	<i>Allen B. et al.</i> (41)	<i>Verdú Soriano J. et al.</i> (34)	<i>Leigh B. et al.</i> (35)	<i>Sakae K. et al.</i> (36)
Energia eta proteinak								
Aminoazidoak								
Mikronutrientek Bitamina eta mineralak								
Konbinazioak: Makro/mikro- nutrienteak								

	Yatabe J. <i>et al.</i> (37)	Neloska L. <i>et al.</i> (40)	Izaka S. <i>et al.</i> (38)	Monteferrairo F. <i>et al.</i> (39)	Langer G <i>et al.</i> (29)	Heintschel M. <i>et al.</i> (26)	Blanc G. <i>et al.</i> (27)	Neyens J.C.L <i>et al.</i> (28)
Energia eta proteinak		Behaketazko ikerketa da, beraz ez dago gehigarrik.						
Aminoazidoak								
Mikronutrienteak: Bitamina eta mineralak								
Konbinazioak: Makro/mikro- nutrienteak								

Honez gain, lan honetan aztertzen da adinduen egoera nutrizionalaren eta PUren eboluzioaren arteko erlazioa. Ohura T. *et al.*-ek (31), adibidez, egindako ikerketan PUak zituzten pazienteen artean, % 43-65 inguruk desnutrizioa zutela ikusi zuten. Gainera, azpimarratzeko da desnutrizioa pariatzen zutenek PU larriagoak eta PUSH balio (3. eranskina) handiagoak zituztela, egoera nutrizional egokia zuten pazienteak baino ($9,2 \pm 0,8$ vs $7,9 \pm 0,8$) (35). Neloska L. *et al.*-ek (40) egindako ikerketan ere, egoera nutrizionala ebaluatzeko parametroak, hots, albumina eta proteina mailak, PUak agertzen zirenean baxuagoak ziren; hipoalbuminemia eta hipoproteinemia sortuz ($p < 0,05$).

ENERGIA ETA PROTEINAK

Ebidentzia altuko gida kliniko batzuen arabera (42,43,45), dieta orekatua nahikoa ez denean edo/eta nutrizio egoera desegokia denean, hau da, pazienteak desnutrizio egoeran edo desnutrituta egoteko arriskua badu; 1,2 - 1,5 g/kg/egun proteina eta 30-35 kcal/kg/egun energia bermatu behar da PUren orbaintzea bultzatzeko. Takehiko Ohura *et al.* (31) eta Shinji Izaka *et al.*-ek (38) ere, energia eta proteinaren ingesta aztertzen zuten euren lanetan (Taula 4).

Taula 4: Ikerketa bakoitzean erabilitako energia eta proteina kantitateak.

	Energia (kcal/kg/egun)		Proteina (g/kg/egun)	
	T.kontrola	T. esperimentalak	T.kontrola	T.esperimentalak
<u>Ohura T <i>et al</i></u>	29,1 ± 4,9	37,9 ± 6,5	1,24 ± 0,22	1,62 ± 0,3
<u>Shinji lizaka <i>et al.</i></u>	Ez dago	30 < 30	Ez dago	0,95 < 0,95

T: talde; Kg: kilo; g: gramo; Kcal: kilokaloria

Takehiko Ohura *et al.*-en (31) kasuan, kontrol taldeari interbentzio egin aurretik jasotzen zuten energia eta proteina kantitate berdina eman zitzaizkien, aldiz, talde esperimentalari paziente bakoitzaren beharretara egokitu zen, PUren estadioak kontuan hartuz. Emandako energia eta proteina kantitateak, adinduen beharrian nutritiboak asetzeko gutxieneko gomendioak (kontrol taldean) edo hauek baino altuagoak (talde esperimentalean) ziren. Interbentzio taldean, PUren tamaina eta sakonera era esanguratsuan jaitsi ziren talde kontrolarekin konparatuz ($p < 0,05$). Gainera talde esperimentalean egoera nutrizionalaren hobekuntza behatu zen neurri antropometrikoei dagokionez; pisua ($p < 0,01$), aldakaren eta izterraren zirkunferentzia ($p < 0,05$) eta tolestura suprailiakoaren ($p < 0,05$) balioak nabarmen handitzen zirelako. Azpimarratzekoa da, hamabigarren astean kontrol taldeko lau paziente eta talde esperimentalaren zazpi pazientei PUak sendatu egin zirela.

Shinji lizaka *et al.*-en (38) artikuluan aldiz, pazienteei hiru astetan zehar gomendatutako energia kantitate minimoa eta proteina kantitate baxua (gomendatutakoa baino gutxiago) ematen zieten; pisua, besoaren zirkunferentzia, eritrozito eta albumina serikoa mailak igo egiten zirela aztertu zuten. Gainera, DESIGN-R (4. eranskina) puntuazioa jaitsi egin zen, granulazio-ehuna eta exudatua murriztu zirelako zein ehun nekrosia eta sakonera gutxitu zirelako. Kontrara, proteina kantitate txikiagoak eta gomendatutako energia baino kantitate baxuagoak erabiliz gero, neurri antropometrikoak eta parametro serikoak ez ziren hobetzen.

Shinji lizaka *et al.*-en (38) artikuluan lortutako emaitzak aipagarriak dira, gida klinikoek gomendatutako proteina kantitate baxuagoa erabiliz gero, PUren hobekuntza ikusten delako. Bi egoera posible dira ondorio horien arrazoirako. Alde batetik, azpimarratzekoa da Takehiko Ohura *et al.*-ek (31) egindako ikerketak hamabi asteko iraupena izan zuela. Interbentzioa aurrera joan ahala, PUren azaleraren tamaina murrizten joan zen bi taldeetan eta ez zen zortzigarren astera arte izan bi taldeko ezberdintasun nabariak ikusi zirela. Beraz, horrek azaldu dezake Shinji lizaka *et al.*-en (38) ikerketan ikusten diren emaitzak. Hiru asteko entsegua da, beraz erabilitako energia eta proteina kantitatearen eraginkortasuna epe motzean egindako interbentzioa delako izan daiteke, eta denbora luzatzen bada, haren eraginkortasuna aldatu daiteke. Bestetik, proteina kantitate baxua ondo funtzionatzearen arrazoia, pazienteen PUak

estadio txikikoak izatea izan daiteke. Halere, artikuluan ez da agertzen eta horrek entsegu gehiagoren beharra azaltzen du.

Nahiz eta kantitate minimo horiek (38) nahikoak izan adinduen PUak sendatzeko, gomendatzen dena baino kantitate gehiago hartzen denean lortutako hobekuntzak nabariagoak direla ondorioztatu daiteke, bai egoera nutrizionalari zein PUren orbaintzeari begira.

Wong A *et al.* (32) eta Yatabe J. *et al.*-ek (37) egindako ikerketetan, PUren estadioaren arabera kantitate ezberdinak eman zituzten. Alde batetik, Yatabe J. *et al.*-ek (37) Harris Benedict-eko gastu energetikoa kalkulatzeko formula eta PUren estadioaren arabera aukeratzen zen faktore estresagarria erabili zuten energia kantitate egokia eskaintzeko. Bestetik, Wong A *et al.*-ek (32) II estadioko ultzeretan 1,2 - 1,5 g/kg/egun proteina ematen zuten eta III eta IV estadioko ultzeretan 1,5 -2,0 g/kg/egun proteina.

Allen. B. *et al.*-ek (41) egindako ikerketan parte-hartzaile guztiek dieta estandarra (1800-2200 kcal/egun eta 60-80 g/egun proteina) jarraitzen zuten. Horrez gain, interbentzio taldeak nutrizio protokolo berezia zeukan. Alde batetik, Proteinex deituriko gehigarria hartzen zuten, bolumena pertsona bakoitzaren desnutrizio mailara doituta egonik (Taula 5), eta bestetik, jarraipen gertuago bat izaten zuten desnutrizio mailen aldaketak kontrolatzeko. Interbentzioaren lehenengo astean ez zuten desberdintasun esanguratsurik behatu BWAT (5. eranskina) baloreetan. Bigarren astean aldiz, interbentzio taldean % 38a ehun osasuntsua bereganatu zuten, talde kontrolean % 2-ren aurrean ($p<0,05$). Laugarren astean talde esperimentalaren % 83,3a BWAT balore egokiak lortu zituzten eta talde kontrolean, soilik % 60k. Interbentzioaren amaieran talde esperimentaleko paziente guztiak sendatu ziren talde kontrolean lauk ez sendatzearen aurrean. Ikusita PUren orbaintze prozesuaren abiadura interbentzio taldean, kontrol taldearekin alderatuta, nutrizio protokoloaren eraginkortasuna baieztatu daiteke.

Taula 5: Desnutrizio mailaren arabera emandako gehigarri mota eta kantitatea

	Interbentzio taldea
Nutrizio egoera egokia	Proteinex: 97 kcal/egun eta 18 g/egun proteina (30 mL)
Neurrizkoa	Proteinex bi egunetan: 114kcal/egun eta 36 g/egun proteina (60 mL)
Larria	Proteinex WC bi aldiz: 214 kcal/egun eta 44 g/egun proteina (30 mL)

g: gramo; Kcal: kilokaloria

Existitzen diren hainbat proteinetatik, kolagena aurkitzen da. Yamanaka H. *eta al.*-ek (30) egindako entseguan PUren orbaintze prozesuan proteina honen eraginkortasuna aztertu zuen. Kasu honetan, interbentzio taldeak 12 g/egun proteina eta 10 g/egun kolagena hartu zituen. Hasieran, kolagena hartu zuen taldearen DESIGN-R puntuaketan beherakada eman zen,

kolagena eta proteina PUren orbaintzean baliagarriak direla ondorioztatuz ($p < 0,05$) (Taula 6). Esan beharra dago, nutrizio egoera adierazten duten albumina, prealbumina, proteina total eta pisu parametroak ez zirela aldatu bi taldeetan. Hau gertatu daiteke interbentzioaren hasieran ez zituztelako energia kantitateak aldatu, orduan beharrak ondo asetuta zeudela baloratu beharko da. Beraz, ikerketa gehiago behar dira ebidentzia altuko ideia bat izateko eta behar guztiak ondo daudela ziurtatuz.

Taula 6: DESIGN-R puntuazioa interbentzioa aurretik eta gero

	Taldea esperimentalak		Kontrol taldea	
	Interbentzio aurretik	Interbentzio ondoren	Interbentzio aurretik	Interbentzio ondoren
DESIGN-R	14,1 ± 4,3	8,8 ± 6,3	15,9 ± 5,7	14,8 ± 7,3

AMINOAZIDOAK

Argininak beste aminoazidoen garraioa eta proteinen formakuntza bultzatu egiten du zeluletan. Gainera, orbaintze prozesuaren proliferazio zelularrean eragiten du, aldaketa mikrobaskularrak eta kolagenaoren ekoizpena sustatuz (16,17). Gida kliniko batzuen arabera, proteina eta energiarekin gertatzen den bezala, argininaz osatutako gehigarriak sustatu behar dira PUren orbaintzea bultzatzeko desnutrizioa edo desnutrizio pairatzeko arriskua duten pertsonetan (42,43,45). *Registered Nurses' Association of Ontario Nursing Best Practice Guidelines Program-ek* egindako gidan 4,5 g/egun eman behar direla dio (43). Ikerketa batzuk aminoazido kantitate ezberdinen eraginkortasuna ikertu dituzte (Taula 7).

Taula 7: Ikerketetan erabilitako gehigarrien konposizio aminoazidikoa.

	Arginina	
	Taldea esperimentalak	Taldea kontrola
Wong A. <i>et al.</i> (32)	7 g	
Yamanaka H. <i>et al.</i> (30)	2,5 g	
Leigh B. <i>et al.</i> (35)	4,5 g edo 9 g	Ez dago
Yatabe J. <i>et al.</i> (37)	4 g	Ez dago

g: gramo

B.Leigh *et al.*-ek (35) egindako ikerketan, arginina dosi ezberdinen eraginkortasuna aztertu zen. Horretarako parte-hartzaileak bi taldeetan banatu ziren. Lehenengoa 4,5 g/egun arginina

hartzen zuen eta bigarrena 9 g/egun arginina. Kasu honetan, pazienteen % 52a desnutrizioa zuten. Bi taldeetan PUSH baloreak jaitsi egin ziren denbora laburrean ($p < 0,001$), hala eta guztiz ere, ez zen behatu bi dosien arteko ezberdintasun esanguratsurik (Taula 8). Honekin ondorioztatu daiteke arginina eragin positiboa duela PUren orbaintze prozesuan eta kantitate baxuarekin nahiko dela hori ziurtatzeko, RNAO-ek (43) egindako gidarekin bat etorritik. Halere, ikerlan honen ahultasuna bi asteko interbentzioa izatea da, beraz ikerketa gehiago burutu behar dira ondorio sendoagoak eduki ahal izateko. Tratamendu bitartean 4,5 g/egun hartzen zutenek bataz beste 2 kg galdu egin zuten. Hau zuzeneko erlazioa izan dezake, bi taldeek energia eta proteina beharrak asetzen ez zituztelarekin, are gutxiago 4,5 g/egun arginina hartzen zutenen taldekoek. Beraz, nahiz eta PUa sendatzen joan kantitate baxuarekin, beharrak behar bezala asetuz gero hobekuntza handiagoa lortu ahalko zen.

Taula 8: Interbentzio talde bakoitzaren PUSH baloreak

	4,5 g/egun arginina hartzen duten taldea		9 g/egun arginina hartzen duen taldea	
PUSH baloreak	Interbentzioa aurretik	Interbentzioa ondoren	Interbentzioa aurretik	Interbentzioa ondoren
		8,9 ± 0,7	5,5 ± 0,5	8,1 ± 1,0

g: gramo

B.Leigh *et al.*-en (35) emaitzekin bat, Yatabe J. *et al.*-ek (37) argininaren eragin positiboa defendatu zuen bere ikerlanean. Kasu honetan interbentzioaren iraupena luzeagoa izan zen eta tratamenduaren hirugarren hilabetean, arginina mailak igo eta mantendu egin ziren. PUSH eta DESIGN-R emaitzei begira puntuazio murriztu egin zer interbentzioa egin ostean ($p < 0,03$). Gainera PUren ezaugarriei dagokionez, lehenengo hilabetean gainazalaren tamaina esanguratsuki murriztu zen ($p < 0,03$) eta perimetroaren kasuan berdina gertatu zen ($p < 0,02$) (Taula 9).

Taula 9: PUSH eta DESIGN-R baloreak interbentzio taldean

	Taldea esperimentalak	
	Interbentzioa aurretik	Interbentzio ondoren
PUSH baloreak	13,7 ± 0,7	11,3 ± 1,1
DESIGN-R baloreak	30 puntu	20 puntu
Gainazalaren tamaina	19,7 ± 8,4 cm^2	14,8 ± 8,1 cm^2
Perimetroa	19,8 ± 4,2 cm^2	16,2 ± 4,8 cm^2

B.Leigh *et al.* (35) eta Yatabe J. *et al.*-ren (37) ikerketen emaitzek argininak PUren sendatze prozesua bultzatu arren, haien emaitzen fidagarritasuna kolokan jartzen da kontrol taldea ez egoteagatik eta lortutako emaitzek beste faktoreengatik eman daitezkeelako.

Kontrara, Yamanaka H. *et al.*-ek (30), arginina gehigarriak PUren orbaintze prozesuan eragina ez zuela behatu zuten. Gehigarria hartu baino lehen, parte-hartzaileek DESIGN-R testan zuten puntuazioa $14,1 \pm 5,6$ -koa eta $15,9 \pm 5,7$ -koa zen talde esperimentalean eta kontrol taldean hurrenez-hurren. Bigarren astean puntuazioa asko murriztu zen bietan, interbentzio taldean $12,0 \pm 11,5$ -ko eta kontrol taldean $15,2 \pm 6,5$ -puntuakoa izatera ailegatuz. Hala eta guztiz ere, interbentzioa bukatzean ez zen ezberdintasun esanguratsurik ikusi hasierako emaitzekin, DESIGN-R testaren puntuazioa arginina hartzen zuen taldean $13,2 \pm 13,4$ -koa izan zen eta kontrol taldean $14,8 \pm 7,3$ -koak. Orobat, egoera nutrizionala adierazten duten parametroek, hots, albumina, prealbumina, proteina totala eta pisua ez zuten aldaketarik erakutsi.

Yamanaka H. *et al.*-eko (30) interbentzio denbora, B.Leigh *et al.* -en (35) ikerketan baino handiagoa izan da. Beraz, lortutako emaitza hau B.Leigh *et al.* (35) eta Yatabe J. *et al.*-ren (37) kontrako izan daiteke erabilitako arginina kantitatea txikia delako.

A.Wong *et al.*-ek (32) burututako beste ikerlan batean, pazienteen % 65 neurrizko desnutrizioa edo desnutrizio larria zuten. Ikerketa honetan talde esperimentalak aminoazido ezberdinez egindako gehigarria hartu zuten; arginina, glutamina, eta metilbutiratoz eginda hain zuzen. Emaitzak aztertuz, bi taldeetan PUren gainazalean, perimetroan eta sakoneran murrizketa egon zen, nahiz eta hasierako neurketekin alderatuz estatistiko esanguratsua ez izan. Kontrol taldearen PUren azaleran % 37,5-ko murrizketa egon zen eta talde esperimentalean % 27,5-koa; estatistikoki ez zen esanguratsua izan. PUSH balioei dagokionez, bi taldeetan murrizketa eman zen eta aurrekoan bezala ez zuen ezberdintasun esanguratsurik erakutsi. Gainera, ehun bizigaiaren hobekuntza esanguratsua izan zen talde esperimentalean ($p < 0,05$) (Taula 10). Esan beharra dago, datu antropometrikoak begira, pisua eta gihar-masa zein nutrizio egoera adierazten duten prealbumina parametroari begira, ez zela aldaketarik sumatu interbentzio ostean.

Taula 10: PUSH baloreak interbentzioa aurretik eta ostean

	Taldea esperimentala		Kontrol taldea	
	<u>Interbentzio aurretik</u>	<u>Interbentzio ondoren</u>	<u>Interbentzio aurretik</u>	<u>Interbentzio ondoren</u>
PUSH baloreak	$12,25 \pm 0,72$	$9,63 \pm 1,09$	$12,35 \pm 0,72$	$10,63 \pm 1,06$
Ehun bizigaiaren hobekuntza	% 43,1		% 25	

Lortutako emaitzetan ikusi da kontrol taldean PUren azaleraren tamaina gehiago murriztu dela talde esperimentalarekin konparatuz, nahiz eta esanguratsua ez izan. Halere, interbentzio

taldean PUren egoera hobetuko dela esan daiteke PUSH balorea txikiagoa delako, izan ere, PUSH tresna, PUren azaleraren tamainaz aparte beste adierazle batzuk kontuan hartzen dituelako. Orduan PUren egoera orokorra hobetuko da talde esperimentalean. Gainera PUren ehun bizigaia hobetu zen ($p < 0,05$).

Ikerketa honetan parte-hartzaileen behar nutrizionalak bermatuta daude, alde batetik hartzen duten proteina kantitatea PUren estadioari egokituta dagoelako eta bestetik energia kontsumoaren gomendioa jarraitzen duelako. Are gehiago, arginina kantitate altuagoa erabiltzen du B.Leigh *et al.*-ek (35) eta Yatabe J. *et al.*-ek (37) artikuluekin konparatuz. Halere, ikusten den bezala, desnutrizioa pariatzen zutenek, ez zuten haien egoera nutrizionala hobetu. Orduan pentsa daiteke ikerketa honetan interbentzio denbora luzatuz gero, pazienteen nutrizio egoera hobetuko dela.

Azpimarratzekoa da, A.Wong *et al.*-eko. (32) artikulua metodologiari begira pisu gehiago duela B.Leigh *et al.* (35) eta Yatabe J. *et al.*-ekin (37) konparatuz, kontrol taldea duelako; eta horrek emaitzak fidagarriagoak izatea suposatzen du. Nahiz eta, ikerketa honen arabera arginina estatistikoki ez eraginkorra izan, epe luzeko interbentzio gehiago behar dira ondorio honi sendotasuna izateko.

Normalean gehigarriak ez daude bakarrik aminoazidoz osatuta eta beste nutrientekin batera doaz edo/eta energia kontsumoaren igoerarekin. Gauzak horrela, ezin da jakin PUren orbaintzearen hobekuntza aminoazidoengatik bakarrik den, edo gainontzeko nutrientek nolabaiteko laguntza eskaini duten. J.C.L Neyens *et al.*-ek (28) egindako errebisioak ideia hau babesten du. Argininaren efektu positiboa bermatzen duten artikulua asko egon arren, gehienetan beste nutrienteen laguntzaz egiten dute. Beraz, argininaren edo beste edozein nutrienteen banakako efektua baieztatzeko ebidentzia maila altuko entseguak behar dira. Ez hori bakarrik, lortutako ikerketa gehienak ez dute kontrol talderik, beraz PUren hobekuntza arginarengatik den edo ez ezin da baieztatu. Entsegu gehiagoren beharra dago baieztapen sendo bat emateko.

MIKRONUTRIENTEAK

Mikronutrienteak PUren orbaintzean zuzeneko erlazioa adierazten duten gidak egon arren, topatu den bakarra zinkari buruz izan da. Zinka mineralaren gabezia agertzen denean orbaintze prozesuaren atzerapena ematen da, proteinen sintesian, zelulen hantura eta zelula epitelialen ugaltzean zein kolagenoaren sorkuntzan parte hartzen duelako (16).

Heintschel M. *et al.*-ek (26) zinkari buruz egindako berrikusketan, PUren osatzean eragin positiboa dutela azaldu zuten. Nolanahi ere, zink bakarrik ikertzen duten ikerketak gutxi daudenez, honi buruz gehiago sakondu behar da emaitza sendoagoak edukitzeko helburuarekin.

KONBINAZIOAK

Lehen aipatu den bezala, gehienetan mikronutriente eta makronutrientek konbinaturik edo/eta energiaren ingestaren igoeran oinarritzen diren tratamendu terapeutikoak erabiltzen dira PUren orbaintzean laguntzeko. Cereda *et al.*-eko (33) ikerketan, parte-hartzaile guztiek, bai kontrol taldekoek zein talde esperimentalekoek, suplementazioa jasotzen zuten elikaduran. Alde batetik, proteina eta energia aberatsa zen gehigarria hartzen zuten eta, bestetik, arginina eta mineral eta bitamina ezberdinez eginda zegoen beste bat. Halere, talde esperimentalaren formulatan zink, arginina, kobrea, magnesio, selenio, eta E eta C bitamina kantitateak handiagoak ziren. Ikerketaren zortzigarren astean bataz besteko PUren itxiera % 60,9-koa zela ikusi zen interbentzio taldean, kontrol taldean bakarrik % 45,2-koa ($p < 0,05$) zelarik. Are gehiago, talde esperimentalaren pazienteen % 69,9-ek, PUren gainazal-tamainaren % 40 baino gehiagoko murrizketa izan zuten, kontrol taldean pazienteen % 54,1aren aurrean ($p < 0,05$). Esan beharra dago, bi taldeko pazienteek pisua irabazi zutela eta PUren hobekuntza eman zela, talde esperimentalean PUren hobekuntza handiagoa izan arren. Emaitza horiek agerian uzten dute proteina eta energia gehikuntzak PUren orbaintze prozesuan laguntzen dutela, eta mikronutriente eta aminoazido kantitate egokiarekin lagunduz gero hobekuntza handitzen dela. Are gehiago, emaitzetan behatu da proteina kopuru eta energia gehiago ematean, pazienteen desnutrizioa murriztu egiten dela.

Kasu hauetan aztertu behar da PUren orbaintze prozesua positiboa izan den gehigarriengatik edo hauen ingestaren ondorioz adinduen egoera nutrizionala hobetzeagatik eta gehigarri baten batek eragin handiagoa izan duen osatze prozesuan ere. Nolanahi ere, ez dago ebidentzia nahikorik hori argitzeko eta ikerketa gehiago behar dira. Ildo beretik, Verdú Soriano J. *et al.*-ek (34) egindako ikerketan, talde esperimentalean zeuden parte-hartzaileak Banimax deituriko gehigarria (argininaz, metioninaz, selenioz eta E eta B taldeko bitaminez osatutakoa) hartu zuten. Ikerketa amaitzean, PUren gainazalaren tamainan murrizketa egon zen ($p < 0,05$) (Taula 11). Gainera, hasieratik amaierarte PUren gainazalean % 88,51 \pm % 23,05-ko erredukzioa egon zen, ikerketaren azkenengo fasean adinduen % 50 PUak guztiz orbaintzea lortuz.

Taula 11: PUren gainazalaren tamaina Banimax hartu eta gero

	Taldea esperimentalak	
	Interbentzioa aurretik	Interbentzioa ondoren
PUren gainazalaren tamaina	19,04 \pm 25,25 zm^2	3,51 \pm 14,20 zm^2

PU: Presio ultzera

Halere, azkenengo artikulu honen emaitzak kontu handiz aztertu behar dira, izan ere, Cereda *et al.*-eko artikuluan (33) ez bezala, ikerketa honetan ez zegoen talde kontrolirik. Hortaz, ezingo da

gehigarriaren eraginkortasuna baloratu bere osotasunean. Balnimax,(34) PUren orbaintze prozesuan efektu onuragarria izan dezakeela ikusten da, baina gomendagarria izango litzateke ikerketa esperimental gehiago egitea gehigarri honen eraginkortasuna guztiz bermatzeko.

Verdú Soriano J. *et al.* (34) artikuluan bezala Monteferrario F. *et al.-ek* (39) egindako ikerketan ez dago kontrol talderik, beraz W-Care gehigarriaren fidagarritasuna kolokan jartzen da. Kasu honetan arginina, kolageno, zink, omega 3 eta B6, C, E, A, B12, K1 eta B1 bitaminaz osatuta zegoen suplementazio erabili zen. Gainera PUren estadioaren arabera gehigarri gehiago edo gutxiago eman zen (Taula 12). PUren estadioak hobetu egin ziren gehigarria hartu ostean (Taula 13). Gainera, ehun nekrotikoa parte-hartzaile guztien % 45en agertzetik, ez egotera pasatu zen. Nahiz eta, PUren hobekuntza ikusi, esan beharra dago, parte-hartzaile gutxi daudenez ezin dela hartu populazio osoaren isla.

Taula 12: W-Care kantitatea presio ultzeraren estadioaren arabera

	W - care gehigarria
I estadioko presio ultzerak	Egunean aldi batean ematen zen
II estadioko presio ultzerak	Egunean bi aldiz ematen zen
III eta IV estadioko presio ultzerak	Egunean hiru aldiz ematen zen

Taula 13: PUren ehunekoa estadio ezberdinetan

	I estadioko PU	II estadioko PU	III estadioko PU	IV estadioko PU
Interbentzio hasieran	Ez zeuden	% 26	% 36	% 38
Interbentzio amaieran	% 54	% 9	% 9	% 28

PU: Presio ultzera

Beraz, ikusi izan diren ikerketatik pisu handiena duena Cereda *et al.* (33) egindakoa da, bi hilabeteko, lagin kopuru handiko zein kontrol taldea duen ikerketa baita. Egia da, gainontzeko artikulua berarekin bat datorrela, mikronutrientez eta makronutrientez osatutako gehigarriak eta energiaren igoeran oinarritutako tratamendu dietetikoak PUren osatzean laguntzen dutela baieztatzen dutenean.

Orain arte, aminoazido eta mikronutrienteen gehigarriak PUren orbaintzean bere kabuz duten eragina aztertu da. Oraingoan, Polaprezinc (zink + L-carnosine dipeptidoa) gehigarria, bien arteko konbinazioa erabili zuten entsegu baten emaitzak aztertu dira, alegia. Kasu honetan proteina eta energia kopurua pazientearen pisuarekiko estimatu zen; eta gainontzeko mikronutrienteen kantitateak, kobrea eta burdina, Japonen dauden gomendioetan oinarrituz

kalkulatu ziren (36). Zortzi asteko tratamendua jasan ostean, zazpi pazienteetan PUak guztiz sendatu ziren eta gelditzen zirenen artean PUSH balioak asko murriztu ziren ($p < 0,05$); horietako bat 9 puntutik 6 puntura pasatu zen, bestea 13 puntutik 4 puntura eta azkenengoa 12 puntutik 4 puntura. Halere, lagina txikia denez, lortutako ondorioen fidagarritasuna kolokan jartzen da (36).

Kontrara, Langer G eta Fink A (29) interbentzio nutrizionalak, bai nutrizio enterala bai parenterala, PUren orbaintze prozesuan eraginkorrak direla baieztatzen duten ebidentzia nahikorik ez dagoela adierazten dute. Ideia honekin bat Blanc G *et. al.-ek* (27) egindako berrikuspena eta Gould L *et al.* (42) egindako gida klinikoa daude. Halere, Blanc G *et. al.-ek* (27) nutrizio enteralarekin, konposizio nutrizional ezberdineko formulekin PUretan hobekuntza dagoela adierazten du, nahiz eta ebidentzia nahikorik ez egon. Gainera desnutrizioa eta PUak dituzten pazienteetan, osasun profesional espezializatuek egiten duten nutrizio interbentzioaren garrantzia nabarmentzen dute (27,29,44).

Laburbilduz, nutrizioa eta PUak zuzeneko erlazioa dutela baieztatzen duen ebidentzia badago (31,40), halere, ikerketa gutxi dira ondorio hori eusten dutenak, beraz sendotasun gutxikoak dira. Halere aztertutako ikerketak kontuan hartuz dieta hiperproteiko eta hiperkalorikoa PUren sendaketarako eraginkorrak dela ikusi izan da eta ez hori bakarrik, baita nutrizio egoera hobetu egin du ere (31,33,41). Orbaintzea bultzatzeko nutrienteen artean gehien erabili izan dena arginina da. Kontraesan ugari dago aminoazido honen eraginkortasunaren inguruan, baina 4-4,5 g/egun kantitate PUa sendatzearen aurrean efizientea izan da (35,37). Halaber, arginina ez da bakarra, zinka bezalako mikronutrientea erabili da gehigarrietan, eta nahiz eta autore batzuen aburuz (26) PUren sendaketan lagundu esan, ez dago ebidentzia nahikorik. Aipatutako kasu hauetan nutrienteak bakarka aztertzen dira baina gehienetan elkar konbinaturik daude, PUren orbaintze egokia sortuz. Kasu hauetan eraginkortasuna nutriente bakar batengatik den edo guztien arteko sinergiagatik den ez da baloratu.

Amaitzeko esan beharra dago, artikuluko gehienetan aurkitu izan diren mugengatik lortutako ondorioak gehigarriengatik diren edo ez ezin da jakin, beraz entsegu kliniko esperimental gehiagoren beharra dago.

MUGAK

Irakurritako ikerlanak aztertuz, orokorrean tamaina txikiko laginak erabiltzen dira. Hortaz, populazioa handitzean lortutako emaitzak aldatu daitezke eta printzipioz, sendagoak izan. Halaber, interbentzio denbora laburra da kasu gehienetan, Cereda *et al.* (33), Ohura T. *et al.* (31), Sakae K *et al.* (36) eta Verdú Soriano J *et al.*-ek (34) izan ezik, tratamendu denbora bi eta hiru hilabetekoa dela. Kasu honetan nutrienteak eraginkorrak izateko denbora tarte gehiago beharrezkoa litzateke.

